

AURKIBIDEA

INDICE

TOMO 8

I. SPRI Taldea.....	1
<i>Grupo SPRI</i>	
- Industriaren Suztapen eta Eraldaketarako Baltzua., S.A.	3
<i>Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A.</i>	
- Arabako Eraberrikuntza Industrialdea, S.A.	31
<i>Centro de Empresas e Innovación de Alava, S.A.</i>	
- Industri Garapenerako Baltzua, Sortu 2, S.A.	45
<i>Sociedad de Desarrollo Industrial, Sortu 2, S.A.</i>	
- Teknologi Elkartegia, S.A.	57
<i>Parque Tecnológico, S.A.</i>	
- Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Gestioa, S.A.	81
<i>Gestión de Capital Riesgo del País Vasco, S.A.</i>	
- Arabako Teknologi Elkartegia, S.A.	95
<i>Parque Tecnológico de Alava, S.A.</i>	
- Donostiako Teknologi Elkartegia, S.A.	117
<i>Parque Tecnológico de San Sebastián, S.A.</i>	
- Urbiga, S.A.	133
- SPRILUR Taldea	145
<i>Grupo SPRILUR</i>	
- SPRILUR. S.A.	147
- Abanto eta Zierbenako Industrialdea, S.A.	163
- Aretxabaletako Industrialdea, S.A.	175
- Azkoitiko Industrialdea, S.A.	189
- Elgoibarko Industrialdea, S.A.	201
- Hernaniko Industrialdea, S.A.	215
- Igorreko Industrialdea, S.A.	229
- Irungo Industrialdea, S.A.	241
- Lasarte-Oriako Industrialdea, S.A.	257
- Aiara Araneko Industrialdea, S.A.	271
- Oarsoaldeko Industrialdea, S.A.	283
- Oñatiko Industrialdea, S.A.	297
- Okamikako Industrialdea, S.A.	309
- Ordiziako Industrialdea, S.A.	325

- Zumarragako Industrialdea, S.A.	339
- Zarautzko Industrialdea, S.A.	353
- Gernikako Industrialdea, S.A.	367
- Centro de Empresas de Zamudio, S.A.	381
- Elorrioko Industrialdea, S.A.	395
- Zuatzu Parque Empresarial, S.A.	407
- Mendaroko Industrialdea, S.A.	421
- Lautadako Industrialdea, S.A.	435
- Orduñako Industrialdea, S.A.	449
- Legazpiko Industrialdea, S.A.	461
- Mutrikuko Industrialdea, S.A.	473
- Eibarko Industrialdea, S.A.	485
- Bergarako Industrialdea, S.A.	497
- Azpeitiako Industria Lurra, S.A.	509
- Lazkaoko Industria Lurra, S.A.	521
- Aurrekontu Bateratuak. SPRILUR Taldea..... <i>Presupuestos Consolidados. Grupo SPRILUR</i>	533
- Aurrekontu Bateratuak. SPRI Taldea <i>Presupuestos Consolidados. Grupo SPRI</i>	539

2000


EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRAK
PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTONOMA DE EUSKADI



I. SPRI Taldea
Grupo SPRI

2000

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRAK
PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTONOMA DE EUSKADI



Industriaren Suztapen eta Eraldaketarako Baltzua, S.A.
Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A.

S.P.R.I., S.A.

1. SARRERA

SPRI, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua, SA Eusko Legebiltzarraren ekainaren 10eko 1981/5 Legeaz sortu zen eta 1981eko irailean eratu zuen Eusko Jaurlaritzak Politika Industriala garatzeko baliabide garrantzitsuenetako gisa. Bere xede nagusia EAEko industriaren sustapena eta birmoldaketa da, lanpostuak mantendu eta sortzeko besteko lehiakortasun, aniztasun eta teknologia maila lor dezan.

Hona hemen Baltzuaren xedeak:

Industri sustapenari laguntzea: azterketak eginez eta kudeaketa, ekonomia zein teknika alorretako zerbitzuen gaineko aholkularitza nahiz interes industrialeko beste batzuei buruzkoa emanez.

Enpresa berrien sorrera eta dagoeneko dihardutenen hedapena erraztea, garapen teknologikoari eta esportazioari arreta berezia eginez.

Enpresen arteko jarduketa erkide eta lankidetzakoak sustatzea, horrek haien lehiakortasuna sendotzen duenean.

Enpresen saneamendu eta birmoldaketa prozesuetan parte hartzen duten alderdien ahaleginen osagarria izatea, betiere haiek bideragarritasun baldintza objektiboak betetzen badituzte.

Bai prozesu berrien bai produktu industrial eta zerbitzu osagarrien garapen eta ikerketa proiektuak sustatzea.

Bere helburuak lortzeko zerikusia daukan beste edozein.

Gainera, jardungo duen eremu berrian, Baltzuak Merkataritza eta Turismo Arloetara zabalduko du bere sustapen jarduera, eta horretarako, bere Estatutuak egokitzeko beharreko kudeaketak egingo ditu.

Horrez gain, bere helburuak erdiesteko, honako ahalak izango ditu Sozietateak:

1.- Enpresei abalak, epe ertain eta luzerako dirulaguntzak eta kredituak ematea, bai eta interes tasa berezikoak ere, Eusko Jaurlaritzak horri buruz ebazten dituen arauetara atxikiz.

2.- Interes bereziko enpresen kapital sozialean parte hartzea, Eusko Jaurlaritzaren baimena lortu ondoren eta kasu bakoitzean ezartzen diren baldintzetan.

3.- Finantza erakunde publiko zein pribatuetatik maileguak jasotzea.

4.- Euskadiko Ogasun Orokorretik eta Autonomia Erkidegoko beste Instituzio zein Erakunde Publikoetatik, bai eta estatuko sektore publikotik ere, dirulaguntzak eta bermeak jasotzea.

1. INTRODUCCIÓN

La Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (SPRI) fue creada por la Ley 5/1981 de 10 de Junio del Parlamento Vasco, y se constituyó el 21 de Septiembre de 1981 como uno de los principales instrumentos a través de los que el Gobierno Vasco desarrolla la Política Industrial en relación, sobre todo, a la promoción y reconversión de la industria vasca a fin de que ésta alcance el suficiente grado de competitividad, diversificación y tecnología, para el mantenimiento y la creación de empleo.

La Sociedad tiene por objeto:

Contribuir a la promoción industrial mediante la realización de estudios, prestación de asesoramiento de servicios en los ámbitos de gestión, económico, técnico y otros de interés industrial.

Fomentar la creación de nuevas empresas, así como la expansión de las ya establecidas, prestando particular atención al desarrollo tecnológico y a la exportación.

Fomentar las actuaciones comunes y de cooperación entre empresas cuando ello conduzca a reforzar su competitividad.

Apoyar con carácter complementario los esfuerzos de las partes implicadas en los procesos de saneamiento y reconversión de empresas, siempre que reúnan condiciones objetivas de viabilidad.

Fomentar los proyectos de investigación y desarrollo, tanto de nuevos procesos como en productos industriales y servicios conexos.

Cualesquiera otras que tengan relación con el ejercicio de sus fines.

Además, en el nuevo ámbito de actuación en el que se desenvolverá, la Sociedad extenderá su actividad promocional a las Áreas de Comercio y Turismo, para la cual realizará en la medida necesaria las gestiones precisas para adaptar sus Estatutos.

Para el cumplimiento de sus fines, la Sociedad podrá llevar a cabo la siguiente operativa principal:

1. Conceder subvenciones, créditos a medio y largo plazo, incluso en condiciones especiales de tipo de interés, así como avales a empresas de acuerdo con las normas que dicte al respecto el Gobierno Vasco.

2. Participar en el capital social de empresas de particular interés, previa autorización del Gobierno Vasco y en las condiciones que en cada caso se determinen.

3. Recibir préstamos de entidades financieras públicas y privadas.

4. Recibir subvenciones y garantías de la Hacienda General del País Vasco y de otras Instituciones y Entidades Públicas de la Comunidad Autónoma, así como del sector público estatal.

SPRIk, 1999ko ekainaren 30ean, 27.278 milioi pezetako kapital soziala zeukan, horretatik %96,07 Eusko Jaurlaritzak harpidetutako ekarpenak direlarik, eta gainerakoa, %3,93, Lurralde Historikoetako hiru Aurrezki Kutxa Konfederatuek harpidetutakoak.

2. ENTITATEAREN JARDUERA NAGUSIAK

Sozietatearen jarduerak bat datoz egungo antolakuntza egituraren eginkizun nagusiekin. Hona hemen:

ENPRESA SUSTAPENERAKO ARLOA

Enpresa Sustapenerako Arloaren helburua enplegu aukera berriak sor ditzaketan enpresa proiektuak sustatzea da.

Jarduketa eremuak enpresa ehunean inbertsioak sortzea, ondoriozko lan sorrera lortzeko, eta teknologia eta kudeaketaren berrikuntza, zentzurik zabalenean.

Eginkizun hori sustapen aktiboan oinarrituz gauzatzen da, hau da, enpresa ideia berriak dituzten enpresari edo sustatzaileak bilatuz eta negozio plana egiteko aholkuak emanez, bai halaber, ekonomi, teknologi eta prestakuntza bitartekoak bilatzen, kokalekua aukeratzen eta dirulaguntza eskaintzan parte hartzen lagunduz eta berrikuntza sustatuz, besteak beste, bai industrian bai Merkataritza eta Turismo alorretan diharduelarik.

ENPRESA BERRIKUNTZA ETA GARAPEN TEKNOLOGIKORAKO ARLOA

Arlo honen eginbeharra aldaketara egokitzen laguntzea da. Horretarako, enpresa eta teknologi berrikuntza sustatzen du: zuzendariak trebatuz, proiektuak ebaluatuz, hedatuz eta aholkularitza emanez eta ETE (Enpresa Txiki eta Ertain) industrialen kudeaketa hobetzeko esperientziak bultzatuz. Aldaketa kulturala ere bultzatzen du, pertsonen jarrerak berritu eta ezagupenak birziklatzeko ekintzen bidez. Azkenik, enpresaren eraldaketa prozesua ere burutzen du, enpresaren antolaketa sistema kudeatu eta berritzeko metodoak aplikatuz.

Halaber, Estrategia Teknologikorako Unitatearen bidez, Euskadiko Zientzia eta Teknologia Planaren lanketan, eta Plan hori aurrera eramateko behar diren programen eta tresnen zehazketan, parte hartzen du Arlo honek.

I+G proiektuentzako laguntzari dagokionez, proiektuak jaso, aztertu, jarraitu, artekari jardun eta Batzorde Betearazleari aipatu proiektuak proposatzea dira bere eginkizunak.

Helburu hori gauzatzeko, sentsibilizazio jarduerak gauzatu eta ETEen hobekuntza eta aldaketa prozesuetarako prestakuntza eta aholkularitza errazteari begirako egitarau eta bitarteko espezifikokoak sortzen dira.

NAZIOARTEKOTZE ARLOA

Nazioartekotzea funtsezko lehiagarritasun-eragilea da mundu ekonomiaren globalizazioari aurre egin eta horretaz baliatzeko; horregatik, SPRI, SAK erraztu egin behar du haren gauzapena informazio, prestakuntza, sentsibilizazio, konpainia eta finantzaketa jarduketan bidez.

La SPRI cuenta, al 30 de Junio de 1999, con 27.278 millones de pesetas de capital social, del que el 96,07% corresponde a las aportaciones suscritas por el Gobierno Vasco y el resto, 3,93%, a las tres Cajas de Ahorros Confederadas de los Territorios Históricos.

2. ACTIVIDADES GENERALES DE LA ENTIDAD

Las actividades de la Sociedad, en correspondencia con su estructura organizativa actual, las podemos resumir en las siguientes funciones principales:

ÁREA DE PROMOCIÓN EMPRESARIAL

El Área de Promoción Empresarial tiene como objetivo el impulsar proyectos empresariales, generadores de nuevas oportunidades de empleo.

Los ámbitos de actuación son la generación de inversiones en el tejido empresarial, con la consiguiente generación de empleo, y la Innovación en el sentido más amplio de tecnología y gestión.

El desempeño de esta misión se realiza basándose en el concepto de promoción activa, es decir, mediante la búsqueda de empresarios o promotores con nuevas ideas empresariales, asesorando en la realización del plan de negocio, colaborando en la búsqueda de recursos económicos, tecnológicos y formativos, así como en la elección de emplazamiento, oferta de ayudas, fomentando la Innovación, etc., actuando tanto en el sector Industrial como en Comercio y Turismo.

ÁREA DE INNOVACIÓN EMPRESARIAL Y DESARROLLO TECNOLÓGICO

Este Área tiene la misión de facilitar la adaptación al cambio, impulsando la innovación empresarial y tecnológica, mediante la formación de directivos, el asesoramiento, la evaluación y la difusión de proyectos y experiencias de mejora de la gestión en las empresas, impulsando el cambio cultural mediante acciones de reciclaje de los conocimientos y renovación de las actitudes de las personas y el proceso de transformación empresarial mediante la aplicación de métodos de gestión y de innovación del sistema organizativo de la empresa.

Asimismo, el Area participa mediante la Unidad de Estrategia Tecnológica, en la elaboración del Plan de Ciencia y Tecnología e Innovación del País Vasco y en la definición de los instrumentos y programas necesarios para llevar adelante el plan.

En lo referente a los proyectos de I+D, sus funciones consisten en la recepción, análisis, seguimiento, interlocución y propuesta de los citados proyectos a la Comisión Ejecutiva.

Para llevar a cabo esta misión se realizan actuaciones de sensibilización y se crean programas e instrumentos específicos para facilitar la formación y asesoramiento en los procesos de mejora y cambio de las Pymes.

ÁREA DE INTERNACIONALIZACIÓN

La internacionalización es un factor de competitividad esencial para afrontar y aprovechar la globalización de la economía mundial, por lo que SPRI, S.A. debe facilitar su consecución mediante actuaciones de información, formación, sensibilización, acompañamiento y financiación.

Ekonomia baten lehiagarritasun maila beraren ekoizpen sistemak lortutako nazioartekotze mailaren arabera neurtzen da, bai eta, zentzu zabalean, berrikuntzarako daukan gaitasunaren arabera. Horri, SPRI, SAren kasuan, Merkataritza eta Turismo sektoreekin zerikusia daukaten jarduketak erantsi behar zaizkio.

ADMINISTRAZIO ETA AURREKONTUEN KUDEAKETA ARLOA

Arlo honen helburua SPRI, SAren Arlo eta Sailak eta Taldeko Sozietateak ekonomia, finantza eta informatika arloetako euskarriez eta estalduraz hornitzea da, Aurrekontu Erregimenari buruzko Lege Orokorraren eta Aurrekontuei buruzko Urteko Legeen babespean beraien eraginkortasuna areagotuz.

IDAZKARITZA NAGUSIA

Idazkaritza Nagusiak Sozietatearen eta partaide diren enpresen gobernu organoen, Sozietatearen Zuzendaritza Nagusiaren eta Arlo Eragile ezberdinen tresna lagungarri izan nahi du. Ildo horretan, nabarmendu behar dira Administrazio Kontseiluen Idazkariaren eginkizuna eta, harreman eta ordezkaritza instituzionalari begira, kasuan kasu esleitzen diren zereginak.

Horiez gain, honako eginkizun eta zerbitzuak ere hartzen eta koordinatzen ditu: giza baliabideak, lege aholkularitza, kalitatea, marketina eta zerbitzu orokorrak.

3. 1999ko GAUZAPEN GARRANTZITSUENAK

1999ko ekainaren 30ean honako gauzapenak har daitezke nagusizat, goian azaldutako jarduketa ildoekin bat:

ENPRESA SUSTAPENERAKO ARLOA

Enpresa Sustapenerako Arloak hiru jarduketa ildo biltzen ditu, eta enpresek eurengana ditzaketan laguntza eta zerbitzu ezberdinak eskaintzen ditu, ondoren azaltzen diren emaitzak lortuz.

Arlo honetan 50 proiektu burutu dira arrakastaz. Horien bidez, hiru urteko epean, 23.466 milioi pezetako inbertsioa eta 1.299 enplegu sortzea espero da.

Hona hemen sustapen jarduera banakaturik:

Kudeatutako proiektuak 163 dira guztira, eta horietarik 50 arrakastaz burutu dira.

16 proiektu estrategiko onartu dira, eta horietatik honako emaitzak espero dira hiru urteko epean:

16.889 milioi pta.ko inbertsioa.

1.056 lanposturen sorrera.

Sustatzaile Berriak Egitarauak, interes tasen jaitsierari loturik dagoenez, eragin urria izan du, tasa horiek izan duten maila historiko baxuaren ondorioz. Hala ere, 1999ko lehenengo sei hilekoan, ondorengo ezaugarriak dauzkaten 2 proiekturen onarpena lortu da:

144 milioi pezetako inbertsioa.

25 lanposturen sorrera.

El grado de competencia de una economía viene marcado por el nivel de internacionalización conseguido por su sistema productivo, así como por su capacidad de innovación en sentido amplio, a lo cual, en el caso concreto de SPRI, S.A. se deben añadir las actuaciones relacionadas con los sectores de Comercio y Turismo.

ÁREA GESTIÓN DE ADMINISTRACIÓN Y PRESUPUESTOS

La misión de este Área es la de proveer soporte y cobertura Económico-Financiera e Informática a las Áreas y Departamentos de SPRI, S.A. , así como a las Sociedades del Grupo, facilitando la operatividad de los mismos en el marco de la Ley General de Régimen Presupuestario y de las Leyes Anuales de Presupuestos.

SECRETARÍA GENERAL

La Secretaría General se configura como un instrumento de apoyo a los distintos órganos de gobierno de la Sociedad y de las empresas participadas, de la Dirección General de la Sociedad y de las diferentes Áreas Operativas, destacándose en este sentido las funciones de Secretario de los respectivos Consejos de Administración, así como las tareas de relaciones y representación institucional que, en cada caso, se considere conveniente asignar.

Además, engloba y coordina las siguientes funciones y servicios: recursos humanos, asesoría jurídica, calidad, marketing, servicios generales y atención al cliente.

3. PRINCIPALES REALIZACIONES DURANTE 1999

Al 30 de Junio 1999, y siguiendo las líneas de actuación explicadas anteriormente, se pueden considerar las siguientes realizaciones principales:

ÁREA DE PROMOCIÓN EMPRESARIAL

El Área de Promoción Empresarial integra tres líneas de actuación, ofertando diferentes ayudas y servicios a los que pueden acogerse las empresas, cuyos resultados se indican a continuación.

En esta área se han culminado con éxito 50 proyectos, que se espera induzcan 23.466 Mll. Ptas. de inversión y la generación de 1.299 empleos, en el espacio temporal de tres años.

El desglose de la actividad promotora es el siguiente:

Proyectos totales gestionados 163, de los cuales se han saldado 50 con éxito.

Los proyectos estratégicos aprobados se cifran en 16, que se espera generen en el espacio temporal de tres años:

16.889 Mll. Ptas. de inversión.

Generación de 1.056 puestos de trabajo.

El Programa Nuevos Promotores, al estar ligado a la bajada de tipos de interés y dado el bajo nivel histórico alcanzado de por sí en dichos tipos, ha tenido escasa incidencia lográndose, no obstante, durante el primer semestre de 1999 la aprobación de 2 proyectos, con las características siguientes:

144 Mll. Ptas. de inversión.

Generación de 25 puestos de trabajo.

Nerbioiaren Ezkerraldea bezalako eskualde erdeinatuei laguntzeko egitarauak eta EBZ eta SPRI, SAREN lankide den zenbait erakunderen bidez kudeatutako laguntzek 32 proiektu hurbilaziti dituzte. Honako emaitzak espero dira 3 urteko eperako:

6.433 milioi pezetako inbertsioa.

218 lanposturen sorrera.

ENPRESA BERRIKUNTZA ETA GARAPEN TEKNOLOGIKORAKO ARLOA

1999ko lehenengo sei hilekoan, Ezagueraren Kudeaketa Sailak honako ikastaroak antolatu ditu: Ekonomi/Finantza Kudeaketa, Aliantza Estrategikoak, Erabateko Kalitatea, Pertsonen Zuzendaritza, Zuzendaritza Estrategikoa, Ekoizpen Estrategiak, Nazioartekotzea, Marketin Estrategikoa eta Erakunde Adimentsuak; bai eta AMAko ikastaro hauek ere: Zuzendarientzako aitzindaritza trebetasunak, Zuzendarientzako komunikazio trebetasunak, Nola antolatu eta garatu bilera emankorrak, Antolakuntza helburuen kudeaketa eta lorpena, Nola egin elkarrizketa eraginkorrak, Lorpen handiagoak eskuordetzearen bidez, Egindakoaren ebaluaketa: nola lortu emaitzarik onenak, Nola zuzendu enpresan hobekuntza prozesua, Benchmarking, Lehia-abantaila berrikuntzaren bidez eta, azkenik, Euro Tailerrak ere. Mintegi horietan 302 enpresa zuzendarik hartu du parte.

Enpresa Berrikuntzarako Sailak lau jarduketa egitarau kudeatzen ditu, eta enpresentzako hainbat zerbitzu ere eskaintzen ditu. Lehenengo sei hilekoan honako proiektuak onartu dira:

ANTOLAKUNTZA ETA ESTRATEGIA: 92 proiektu

RETO: 33 proiektu

PROMOWEB: 37 ezarketa.

Garapen Teknologikorako Sailak, politika teknologikoa ezartzea den bere eginkizunaren baitan, 248 proposamen ebaluatu ditu. Horietarik 179 proiektu onartu dira, 2.990 milioi pezetako aurrekontua eskatzen dutenak. Ildo horretan, proiektu teknologikoetarako 2.781 milioi pezetara onartu dira dirulaguntzetan.

Hedapen teknologikoari dagokionez, 8 mintegi egin dira eta 494tik gora pertsonak hartu du parte haietan, eta 136 Euskadiko enpresari eman zaio aholkularitza.

NAZIOARTEKOTZE ARLOA

ALIANZA ESTRATEGIKO ETA NAZIOARTEKO LANKIDETZARAKO SAILA

1999an sakonki landu dira, Euskadin zein atzerrian, hainbat herrialdeetako erakunde, instituzio eta enpresarekiko harremanak. Azpimarratu beharrekoak dira SPRIk La Habanan duen bulegoaren jardueren garapena eta sendapena.

Sailaren ekintzek honako emaitza eduki dute 1999an: Euskadiko enpresak nazioartekotzeko 62 proiektu kudeatu dira; horietarik 26 EAEko enpresen eta atzerrikoen arteko mota ezberdinetako lankidetzak akordioak izan dira.

Los programas de apoyo a zonas desfavorecidas como la Margen Izquierda del Nervión y las ayudas gestionadas a través de los CEI's y de diferentes Organismos colaboradores de SPRI, S.A., han posibilitado en su conjunto la captación de 32 proyectos que, en el espacio temporal de 3 años, se esperan que generen:

6.433 Mll. Ptas. de inversión.

Generación de 218 puestos de trabajo.

ÁREA DE INNOVACIÓN EMPRESARIAL Y DESARROLLO TECNOLÓGICO

Durante el primer semestre de 1999, el Departamento de Gestión del Conocimiento ha puesto en marcha los cursos de Gestión Económico-Financiera, Alianzas Estratégicas, Calidad Total, Dirección de Personas, Dirección Estratégica, Estrategias de Producción, Internacionalización, Marketing Estratégico, Organizaciones Inteligentes y en los siguientes cursos de AMA: Habilidades de liderazgo para directivos, Habilidades de Comunicación para los directivos, Cómo planificar y desarrollar reuniones productivas, Gestión y logro de objetivos organizacionales, Cómo entrevistar eficazmente, Consiguiendo más a través de la delegación, Evaluación del desempeño: Cómo lograr los máximos resultados, Cómo liderar un proceso de mejora en la empresa, Benchmarking, Crear una ventaja competitiva a través de la innovación; así como Talleres Euro, consiguiendo la participación de 302 directivos de empresas en los precitados seminarios.

El Departamento de Innovación Empresarial gestiona cuatro programas de actuación, ofertando diferentes servicios a los que pueden acogerse las empresas, habiéndose aprobado los siguientes proyectos en el período, tal y como se detalla a continuación:

ORGANIZACIÓN Y ESTRATEGIA: 92 proyectos

RETO: 33 proyectos

PROMOWEB: 37 implantaciones

El Departamento de Desarrollo Tecnológico en su labor de implantación de política tecnológica, ha evaluado 248 propuestas, aprobándose 179 proyectos que suponen un presupuesto de 2.990 Mll. Ptas., lo que ha derivado en que se hayan aprobado subvenciones para proyectos tecnológicos por importe de 2.781 Mll. Ptas.

En cuanto a las labores de difusión tecnológica, se han llevado a cabo 8 seminarios a los que han acudido más de 494 partícipes, habiendo dado asesoramiento a 136 empresas vascas.

ÁREA DE INTERNACIONALIZACIÓN

DEPARTAMENTO DE ALIANZAS ESTRATÉGICAS Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL

En el año 1999 se ha desarrollado una intensa labor de contactos institucionales y empresariales con organismos y empresas de diversos países, tanto en el País Vasco como en el Extranjero. Cabe destacar el desarrollo y consolidación de las actividades de la oficina de SPRI en La Habana.

Como resultado de las acciones del Departamento, en 1999 se han gestionado 62 proyectos de Internacionalización de empresas vascas, de los cuales 26 correspondieron a acuerdos de colaboración de diversa índole entre empresas vascas y extranjeras.

Horrez gain, kudeatutako proiektuei esker 7.000 milioi pezetako gehikuntza espero da enpresen fakturazioan, bai eta 700 lanpostu sortu edo iraunaraztea ere.

INSTALAZIO HANDIENTZAKO ETA INBERTSIOAK ERAKARTZEKO SAILA

Instalazio Handiei begirako jarduerak Euskadiko enpresa taldeek Zerbitzuen Kudeaketa Integralerako Emakida proiektuetan parte hartzeko egituraketarantz bideratu dira.

Sail honen jardueraren eraginez, gaurkora arte, Euskadiko enpresek 3 akordio zehaztu dituzte; horiek euskal enpresei 33.000 milioi pezetako salmenta gehikuntza ekarriko dietela aurreikusi da, bai eta 3.300 lanpostu sortu edo iraunaraztea ere.

Hala ere, ez dirudi gehikuntza horren zioa izan den salmenta akordio puntuala izango denik datozen urteetarako joeraren adierazgarri.

Inbertsioen erakarpenari dagokionez, kudeatu diren 12 proiektuetarik 3 arrakastaz burutzea espero da eta horien eraginez 4.000 milioi pezetako inbertsioa eta 300 lanpostu sortuko dira.

ADMINISTRAZIO ETA AURREKONTUEN KUDEAKETA ARLOA

Ohiko administrazio, kontabilitate, fakturazio, zerga eta abarreko zereginenez gain, 1999ko Kudeaketa Planaren artapena ere egin da, bai, halaber, Baltzu nagusiaren zein Taldeko Sozietateen 1998ko ekitaldikotako kontu-ikuskapenak eta SPRI, SAKo zein Taldeko Sozietateetako Funtzio informatikoaren kudeaketa ere.

Taldeko Sozietate multzo osorako ikuskaritza-sinaduren hautaketa prozesua ere gauzatu da, 1999tik 2002ra arte ixten diren ekitaldiei dagokienez.

IDAZKARITZA NAGUSIA

Atal hau arduratu da SPRI, Euskadiko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa eta SPRILUR-en Batzak eta Kontseiluak egiteaz, bai eta horietan hartutako erabakiak tramitatzeaz ere.

Era berean, Sozietatearen giza baliabideak kudeatu eta lege aholkularitza ere bideratu du. Bestalde, komunikazio eta publizitate ekintzak, zerbitzu orokorren kudeaketa eta bezeroentzako arreta zerbitzua koordinatu ditu.

Aurrera segitzen dute EFQMko erabateko kalitate eredua kudeaketa sistema gisa ezartzeko prozesuak eta kalitatea bermatzeko sistemaren garapenak, ISO 9002 arauari atxikiz emandako lau ziurtagiriak mantendu eta horietako baten irismena zabaldu egin delarik.

4. 2000. URTERAKO HELBURU OROKORRAK ETA HORIEN ZENBATESPENA

Además, debido a los proyectos gestionados se estima un incremento de 7.000 Millones de Pts. en la facturación de las empresas y un incremento o mantenimiento del empleo de 700 puestos de trabajo.

DEPARTAMENTO DE GRANDES INSTALACIONES Y CAPTACIÓN DE INVERSIONES

La actividad de Grandes Instalaciones ha evolucionado hacia la estructuración de la participación de grupos de empresas vascas en proyectos de Concesión para la Gestión Integral de los Servicios.

Como resultado de las actividades del Departamento, hasta la fecha, las empresas vascas han concretado 3 acuerdos que pueden representar un incremento de ventas previsto para las empresas vascas de 33.000 Millones de Pts., estimándose una inducción de 3.300 empleos creados o mantenidos.

No obstante este incremento responde a la consecución puntual de un acuerdo de ventas que no se prevé marque la tendencia para los próximos años.

En cuanto a la captación de inversiones se han gestionado 12 proyectos de los que se espera culminar con éxito 3, que se estima generen una inversión de 4.000 millones de pesetas y un empleo de 300 puestos de trabajo.

ÁREA GESTIÓN DE ADMINISTRACIÓN Y PRESUPUESTOS

Adicionalmente a las labores normales de administración, contabilidad, facturación, impuestos, etc., se ha realizado el seguimiento del Plan de Gestión de 1999, así como las auditorías del ejercicio 1998, tanto de la Sociedad matriz, como del consolidado del Grupo. Asimismo, se ha llevado a cabo la gestión de la función informática, tanto de la propia SPRI, S.A. como para Sociedades del Grupo.

Asimismo, se ha llevado a cabo el proceso de selección de firmas de auditoría para todo el conjunto de Sociedades del Grupo, correspondiente a los ejercicios que se cierran a partir de 1999 y hasta el 2002.

SECRETARÍA GENERAL

Se ha encargado de la celebración de las diferentes Juntas y Consejos de SPRI, Gestión de Capital Riesgo del País Vasco y SPRILUR, así como de la posterior tramitación de los acuerdos adoptados.

También se ha encargado de la gestión de los recursos humanos de la sociedad, así como de la asesoría jurídica. Por otra parte, se han coordinado las acciones de comunicación y publicidad, la gestión de los servicios generales y atención al cliente.

Se sigue avanzando en la implantación del modelo de calidad total de EFQM como sistema de gestión y en el desarrollo del sistema de aseguramiento de la calidad, manteniendo los cuatro certificados concedidos de acuerdo a la norma ISO 9002 y ampliando el alcance de uno de ellos.

4. OBJETIVOS GENERALES PARA EL AÑO 2000 Y SU CUANTIFICACIÓN

Milurteko berriaren erronkei aurre egiteko, SPRI, SAK, CAEko Administrazio Instituzionalaren atal den aldetik, proiektu elkarbanatu baten garapenaren aldeko apustua egiten du, euren eraginkortasuna frogatzen ari diren honako hiru estrategietan oinarriturik: **EZAGUTZA, KALITATEA ETA LANKIDETZA**

Oso modu ezberdinetan definitu izan da aldaketak, ziurgabetasuna eta elkarmenpeketasuna ezaugarri dauzkan egoera berri hau: informazioaren gizartea, ezagutzaren globalizazioaren gizartea, etab. Edonola ere, horiek guztiek errealitate ukaezina islatzen dute: erakundeen arrakastaren betiko eragileek ez dute jadanik balio epealdi honetan. Arrakastaren eragile berriak erakundeko eragile ukiezinak deritzenen baitan daude, ez haren tamainaren ez egiturazko kapital deritzanaren menpekoak ez direnak. Kontzeptualizazio teorikoetako edozeinetan giza kapitala, negozio aukera berriak aprobetxatu eta gainerako lehiakideek baino lehenago egiteko gaitasuna da faktore erkidea.

EZAGUTZA

Informazioa modu burutsu eta aplikatuan erabiltzea da Ezagutza, eskura dagoen informazioa kudeatuz eta helburu ekonomiko eta sozialetarako baliatuz.

Ezagutzak, nolabait, osatu egiten du Informazioaren Gizartea deritzana, izan ere, horrek azpimarratu egiten baititu enpresa eta herrialdeetako ekonomien etorkizunerako funtsezkoak diren alderdi batzuk. Ezagutza berak informazioa eskuratu, igorri, trukatu eta kudeatzeko aukera izendatzen du, Informazioaren Gizarte kontzeptuak, bestetik, ezagupen sorrera eta hedapenean oinarriturik herrialde baten garapen ekonomikoa sustatuko duen espirala sortzea proposatzen du.

Ezagutzaren Gizarte kontzeptuak pertsonen ezagupenak elkarbanatzearen komenigarritasuna planteatzen du garapen sozial eta ekonomikoari begira, horrela balioa eta berrikuntza sortzeko eta, ondorioz, herritarrarentzako produktu eta zerbitzuak ere. Ezagutzan oinarrituriko garapena informazioaren eta telekomunikazioen teknologien erabilera trinkoan bermaturik dago, horiek, gaur egun, ideia eta ezagupen trukaketa hori erraztu egiten baitute.

Etengabe berriztatzen ari den informazio emari zenbatezina eduki ahal izateak aipatu informazio hori iragatzi, geureganatu, barneratu eta aprobetxatzea eskatzen du, eta horretarako, pertsonengandik gaitasun berriak ez ezik, enpresetan prozesu antolaketa berriak ere behar dira, ikasteko xedez ahaztea ere ahalbidetuko dutenak. Produktuen baliozkotasun epea gero eta arinago laburtzen den bezala, ikasteko gaitasunak ere ikasi nahi izateko eta ez-jakiteari aurre egiteko jarrera irekia eta iraunkorra eskatzen du erakundeengandik.

Horregatik, erakundeen erronka, eta bereziki enpresena, bera osatzen duten pertsonen kapital intelektuala erakarri, garatu, gorde eta ahalik eta hoberen aprobetxatzea izango da, horren menpean dagoelako etorkizunari aurrea hartzeko aukera, eta azken horren menpean, halaber, globalizazioaren aroan bermeak eskuan dauzkagula lehiatu ahal izatea.

KALITATEA

Kalitatea konpromisoa da batez ere; ezagutzeko borondatea barne hartzen du eta borondateak norabide berari begira jartzea lortzen du, horiek bezero, langile eta akziodunen poztasunerantz bideratuz.

Kalitatea hobetzeko konpromiso iraunkorra da. Sekula ez da guztiz lortzen, bezeroen beharizan eta iguripenen bilakaerara egokitzeko etengabeko ahaleginezko joera adierazten baitu.

Para hacer frente a los retos del nuevo milenio, SPRI, S.A., como parte integrante de la Administración Institucional de la CAE, apuesta por el desarrollo de un proyecto compartido basado en tres estrategias que están demostrando su efectividad: **EL CONOCIMIENTO, LA CALIDAD Y LA COOPERACIÓN**

Este nuevo contexto de cambios, incertidumbre e interdependencia ha sido definido de muy diversas maneras: sociedad de la información, de la globalización del conocimiento, etc. En todo caso, todas ellas reflejan una realidad irrefutable: los factores tradicionales del éxito de las organizaciones ya no sirven para este nuevo periodo. Los nuevos factores de éxito se encuentran en los denominados factores intangibles de la organización que no dependen ni de su tamaño, ni del llamado capital estructural. En cualquiera de las concepciones teóricas, el denominador común está en el capital humano, en el talento para aprovechar las nuevas oportunidades de negocio y hacerlo ganando tiempo al tiempo, antes que el resto de los competidores.

CONOCIMIENTO

El Conocimiento es la utilización inteligente y aplicada de la información, gestionando la información disponible y tratándola para fines económicos y sociales.

El Conocimiento viene en alguna medida a completar la llamada Sociedad de la Información, porque viene a recalcar algunos aspectos que se constituyen en idea fuerza para el futuro de las economías de empresas y países. La primera da nombre a la posibilidad de acceder, transmitir, intercambiar y gestionar información, la segunda aboga por crear una espiral de creación y difusión de conocimientos que promueva el desarrollo económico de un país.

La Sociedad del Conocimiento es un concepto que apela a un desarrollo social y económico en base a compartir los conocimientos de las personas para crear valor e innovación que se traducen en productos y servicios para el ciudadano. Este desarrollo basado en el Conocimiento está apoyado en un uso intensivo de las tecnologías de la información y de las telecomunicaciones que hoy en día permiten esta transferencia de ideas y conocimientos de forma asequible.

La disponibilidad de un incalculable caudal de información que se renueva constantemente exige filtrarla, digerirla, asimilarla y aprovecharla, para lo que se hacen necesarias no sólo nuevas capacidades en las personas, sino nuevas organizaciones de procesos en las empresas que permitan incluso olvidar para aprender. Al igual que la vida útil de los productos se va acortando de forma acelerada, la capacidad de aprender exige en las organizaciones una actitud permanente de apertura, de querer saber y de enfrentarse al no saber.

Por ello, el reto de las organizaciones y, en particular de las empresas, será atraer, desarrollar, retener y aprovechar al máximo el capital intelectual de las personas que la componen, porque de ello depende la anticipación al futuro y, de ésta, la posibilidad de competir con garantías en la era de la globalización.

CALIDAD

La Calidad es, especialmente, un compromiso, incorpora la voluntad al conocimiento y logra la integración de voluntades en una misma dirección, orientándola hacia la satisfacción de los clientes, empleados y los accionistas.

La Calidad es un compromiso permanente de mejora. No se alcanza nunca, expresa una tendencia hacia la superación constante para adaptarse a la evolución de las necesidades y expectativas de los clientes.

Kalitatea oso loturik dago prozesuen hobekuntzei (berrikuntza, kostua, denbora). Talentua bitartekoa den bezala, Kalitatea metodoa da, eta berrikuntza emaitza.

Talde lana eta lankidetzak, giza baliabideen gaitzuntasun eta prestakuntza, proiektu berriei ekiteko erronka eta ekimena, arazoan ebazpena eta hobetzeko aukeren bilaketa dira enpresako kide guztiak proiektu erkide batean inplikatu eta parte harrarazi behar diren misio korporatibo gisa definitzen dutenak enpresa. Balio horiek daude pertsonak enpresaren kapitalik handiena direlako irizpenaren oinarrian, kapital hori delarik lehia-diferentzia egonkorrak sortzen dituen bakarra, kopiatu ezin daitekeen bakarra, eta soilik beraren banakako ekarpenaren eta bere talde-inplikazioaren bidez lor daiteke erakundearen goreneko atarramentu maila.

Hori dela eta, Kalitatearen estrategia epe luzerako politika eskatzen duen prozesu luzea da.

Horrez gain, sustatzailearen etengabeko ahalegina behar da: aurrekaria den kudeatzailearen borondate ausarta, etengabeko hobekuntzarekiko konpromisoa hartu duen erakunde osoa bultzatzen duena.

Ondorioz, soilik Administrazioak igortzen dituen mezuen iraunkortasun eta koherentziak eta enpresetako aurrekariak kudeaketaren atarramenturik handiena bilatzeko erakusten duten pazientzia eta ekintasunak emango dute arrakasta lortzeko aukera.

Bi estrategiak, Ezagutza eta Kalitatea, ez dira elkarren baztergarri, elkarren osagarri baizik. Izan ere, "2000 eredua" izeneko Europako erabateko kalitate ereduaren bilakaeran, arlo berriak eratzeke joerak azaltzen dira, aipatu arlo horien artean bereziki honako biak nabarmentzen direlarik: batetik, Ezagutzaren eta erakundearen baitako esperientzien kudeaketa, eta bestetik, elkartzeko harremanak, hots, Lankidetzak.

LANKIDETZA

Lankidetzak enpresen arteko interes eta helburuak batzea adierazten du. Enpresek elkarrekin jarduteak bakoitzaren bitartekoen erabilera handiagoa ahalbidetzen du. Horrela indartu egiten dituzte jarduten duten merkatuetan dauzkaten lehia-abantailak.

Gaur egun, intentsitate ezberdineko Lankidetzak itun ugari ikusten ari gara enpresen artean, horietako batzuk elkarren lehiakide izan arren, euren negozio estrategiak gauzatu eta merkatu berrietara eta bezero berriengana iristea, produktu berriak garatzea, ikertzea, inbertitzea, etab. lortzeko.

Hala ere, ETEek dituzten arazorik handienetako bat eskura ditzaketen baliabideen mugapena da, horrek eragotzi egiten baitie euren lehiagarritasuna bermatu eta hobetzeko egin nahi eta beharko litzaketen ekintza guztiak gauzatzeko.

Eta merkatuen globalizazioak edo Europako haien lehiakide gehikuntzak areagotu egiten du arazo hori, eurek bakarrik ezin lor dezaketen gutxienezko tamaina exigitzen dielako euren jarduerak arlo guztietan.

Gauzak horrela, elkarlehiak ulertzeko bide berri bat nagusitzen ari da: lankidetzan oinarriturikoa, hain zuzen ere; hau da, lankidetzak akordioak egitea eskatzen duten enpresako arloak eta beste enpresekiko lehia harremanak eskatzen dutenak bereiztean oinarrituz.

Lankidetzak biderkatu egiten ditu ondorengoei aurre egin behar dieten enpresen jarduketak:

Merkatuetako etengabeko aldaketak

La Calidad tiene mucho que ver con las mejoras de los procesos (innovación, coste, tiempo). Si el talento es un recurso, la Calidad es un método y la innovación un resultado.

Los valores de trabajo en equipo y la colaboración, la capacitación y formación de los recursos humanos, el reto y la iniciativa por abordar nuevos proyectos, la resolución de problemas y la búsqueda de oportunidades de mejora, son los que definen la empresa como una misión corporativa que debe involucrar y hacer partícipes a todos sus miembros en un proyecto común. Están en la base de la consideración de que las personas son el mayor capital de la empresa, el único que genera diferencias competitivas estables, el único que no se puede copiar, y del que sólo a través de su aportación individual y su involucración en el grupo se podrá alcanzar la máxima plenitud de la organización.

Por estas razones la estrategia de Calidad es un proceso de gran duración que requiere una política de largo plazo.

Asimismo, se necesita un esfuerzo permanente del promotor, una voluntad decidida del gestor que lidera y que ha de transmitir su impulso sostenido hacia toda la organización que se compromete con la mejora continua.

Consecuentemente, sólo la persistencia y coherencia en los mensajes por parte de la Administración y la paciencia y perseverancia en la búsqueda de la excelencia en la gestión por parte de los líderes de las empresas darán oportunidades al éxito.

Ambas estrategias, Conocimiento y Calidad, no son excluyentes, sino complementarias. De hecho, en la evolución del modelo europeo de calidad total, el denominado "modelo 2000", las tendencias apuntan a incorporar nuevas áreas, entre las que destacan especialmente dos: la gestión del Conocimiento y experiencias en el seno de la organización y, la segunda, las relaciones de asociación: la Cooperación.

COOPERACIÓN

Cooperar es unir intereses y objetivos entre empresas. La actuación conjunta de las empresas permite una mayor utilización de sus recursos respectivos. Así, refuerzan sus ventajas competitivas en los mercados donde actúan.

Estamos asistiendo a continuas manifestaciones de Cooperación de diferentes niveles de intensidad, entre empresas, incluso competidoras, para conseguir hacer realidad sus estrategias de negocio y acceder mejor a nuevos mercados, a nuevos clientes, a desarrollar nuevos productos, a investigar, a invertir, etc.

Sin embargo, uno de los principales problemas de las Pymes es la limitación de los recursos de que pueden disponer, lo que les impide realizar todas las acciones que desearían y deberían para mejorar y garantizar su competitividad.

Este hecho se ve acentuado por la globalización de los mercados o por el incremento de la competencia europea a la que tienen que enfrentarse, lo que les exige una dimensión, un tamaño mínimo, en todas sus áreas de actividad que por sí solas no pueden alcanzar.

En estas circunstancias se está imponiendo una nueva forma de entender la competencia basada en la cooperación, es decir, en la delimitación de aquellas áreas de la empresa en las que es conveniente llegar a acuerdos de colaboración de aquellas otras en las que la relación con las empresas es de competencia.

La Cooperación es un medio que permite multiplicar las actuaciones de las empresas que tienen que afrontar:

Cambios continuos en los mercados

Berrikuntza prozesu etengabearen beharrezana

Prozesuetan, kudeaketan eta produktuetan egindako hobekuntzen abantailak gero eta gutxiago irautea

Baliabide hazkor eta jarraien beharrezana

Arrisku handiagoa, beharrezko hobekuntzak eta berrikuntzak egiteko inbertsioetan

Estrategiak sekula ez dira gaur egun bezain garrantzitsuak izan edozein erakunderentzat. Estrategiak etorkizunari begiraten dio beti, sekula ez iraganari. Hala ere, inportanteena erakundeek euren estrategiak abiarazteko erakusten duten gaitasuna da.

Sustapen-jarduketari dagokionez, SPRI, SAK, estrategiak zehatz daitezzen bultzatu ez ezik, haiek ezarri eta honako helburu orokorrak lortzeko tresnak eskainiko ditu ere:

INBERTSIOA, enplegua sortu eta iraunarazteari begira.

BERRIKUNTZA, bai teknologikoa bai kudeaketarena, gure lehiakideek baino produktu zein zerbitzu hobekak eta haiek baino lehenago sortzeko gai diren erakundeak edukitzea ahalbidetuko diguna.

NAZIOARTEKOTZEA, merkatu globalean tokia aurkitzen eta horrek gure toki-ekonomia bultzatzeko eskaintzen dizkigun aukerak aprobetxatzen lagunduko diguna.

1. EMPRESA SUSTAPENERAKO ARLOA

Arlo honen ekintzen xedea industri, merkataritza eta turismo ehunaren sustapen integral eta aktiboa da, egitarau berriak garatuz eta daudenak ekonomi ehunaren beharrezanetara egokituz. Hori guztia orain arte berarekin lan egin izan duten enpresa, sektore eta klusterrekin edota susta litezkeen beste batzuekin lankidetzan egiten du, aurretiaz azterketa eta diagnostikoa egin ondoren eta eskura dauden bitartekoak erabiliz, maila ezberdinetan – banakoan, sektorean, eskualdean– dauden enpresa-urritasunak konpondu nahian.

1. INDUSTRIAREN SUSTAPENERAKO SAILA

Sail honen jarduketaren filosofia enplegua sortuko duten inbertsio proiektu berriak sustatzeko sustapen integral eta aktiboan datza, erreferentziatuz Euskal Autonomia Erkidegoaren eremu geografiko osoa hartuz, batez ere Ekonomi Sustapenerako 2000-2003 Institutio Arteko Planean bereziki erdeinaturikotzat aurkezten diren eskualdeak.

Horrek dakarren lana, enpresari eta ekintzaile berriengana hurbiltzea kasu, EBZ (Enpresa eta Berrikuntza Zentroak) izeneko Sustapen Sozietateetako Gerenteek eta Teknikariek egingo dute arretaz ere. Izan ere, URBIGA, CEDEMI, CEDEIBU, SAIOLAN, CEIA eta BERRILAN zentroak sortu zirenetik honako esperientziak proiektu kopuru handia gauzatzen lagundu du, eta aipatu sozietateetan egoki betetzen ari dira euren sorreraren zio izan ziren enplegu helburuak. Eskualde mailako jarduketa zehatzerako Sozietate horiek jarduten ez duten lekuetan SPRI, SAK berak gauzatuko ditu zuzenean aipatu zereginak.

Exigencia de un proceso innovador continuo

Una duración cada vez menor de la ventaja que aportan las mejoras introducidas en procesos, gestión y productos.

Exigencia de recursos crecientes y continuos

Un mayor riesgo en las inversiones para introducir las mejoras e innovaciones que son necesarias

Las estrategias nunca han sido tan importantes como lo son ahora para cualquier organización. La estrategia mira al futuro y nunca al pasado. Sin embargo, lo que realmente importa es la capacidad de las organizaciones para poner en marcha sus estrategias.

En el nuevo contexto de actuación promocional, SPRI, S.A. no sólo impulsará la definición de estrategias, sino que además facilitará las herramientas para su implantación y consecución de los siguientes objetivos generales:

INVERSIÓN para la creación y mantenimiento del empleo.

INNOVACIÓN, tanto tecnológica como de gestión que nos permita contar con organizaciones capaces de crear productos y servicios, antes y mejor que nuestra competencia.

INTERNACIONALIZACIÓN que nos posibilite posicionarnos en el mercado global y aprovechar las oportunidades que nos brinda para potenciar nuestra economía local.

1. ÁREA DE PROMOCIÓN EMPRESARIAL

Esta área dirige sus acciones hacia la promoción integral y activa del tejido industrial, comercial y de turismo, desarrollando nuevos programas y adaptando los existentes a las necesidades del tejido económico, en colaboración con las empresas, sectores y clusters con los que se viene trabajando u otros nuevos que pudieran ser objeto de promoción y tratando de resolver, previo análisis y diagnóstico, y con los mecanismos de que se dispone, las deficiencias empresariales a diferentes niveles, individual, sectorial, comarcal.

1. DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN INDUSTRIAL

La filosofía de actuación del Departamento está basada en la promoción integral y activa con la que tratar de impulsar nuevos proyectos de inversión generadores de empleo, en todo el ámbito geográfico de la Comunidad Autónoma del País Vasco y, de forma intensiva, en las zonas especialmente desfavorecidas definidas en el Plan Interinstitucional de Promoción Económica 2000-2003.

La labor que esto conlleva, de aproximaciones al empresariado y nuevos emprendedores, continuará realizándose a través de los Gerentes y Técnicos de las Sociedades de Promoción denominadas CEI's (Centros de Empresa e Innovación), URBIGA, CEDEMI, CEDEIBU, SAIOLAN, CEIA, BERRILAN, cuya experiencia desde su creación ha permitido aflorar un número importante de proyectos, de forma que en las citadas sociedades se están cumpliendo satisfactoriamente los objetivos de empleo para los que fueron creados, o directamente desde SPRI, S.A. allí donde no se cuenta con la presencia de las Sociedades de actuación comarcal específica.

Ekintza horiek 2.700 inguru enplegu sortzera bideratuko dira hiru ekitaldiko epean, guztira 175 proiektu kudeatuz eta gutxi gorabehera 54.000 milioi pezetako inbertsio-zenbatekoa mugiaraziz.

Halaber, SPRI, SAK Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren lankide jardungo du, 2000ko ekitaldian zehar, EKIMEN fondoan kudeaketan, aurreikusitako 5.000 milioi pezetako zenbateko globala bideratuz, bere kapital aurrekontuko kapital ibiltariaren aldaketak eta Ekonomi Sustapenerako 2000-2003 Institutio Arteko Planetik eratorritako Egitarau berriek islatzen duten bezala.

2. PARTAIDE DIREN ENPRESA ETA ENPRESA SUSTAPENEAN LAGUNTZEN DUTEN AGENTEENTZAKO KUDEAKETA BATASUNA

Honen eginkizuna xede nagusizat enpresa sustapena eta lanpostuen sorrera duten enpresa partaideen jarduketak koordinatzea da eta, aldi berean, SPRI, SAK ekitaldirako zehaztutako helburuekiko koherente bihurtzen ditu. Gauza bera egiten du SPRI, SArekin hitzarmenak sinatu dituzten Tokian tokiko Agente Laguntzaileen jarduketekin, enpresa sustapenerako eta lanpostuak sortzeko beraien jarduera bultzatuz.

2. ENPRESA BERRIKUNTZA ETA GARAPEN TEKNOLOGIKORAKO ARLOA

Enpresa Berrikuntza eta Garapen Teknologikorako Arloak bi jarduketa ardatz dauzka: enpresa ezagutza eta eraldaketa; hori dela eta, hiru Sailetan oinarritzen da, eta horien bitartez planteatzen ditu Arloaren helburu espezifikoak, Industria, Merkataritza eta Turismo arlo ekonomikoetara zuzenduz.

1. EZAGUTZAREN GESTIO SAILA

Honen eginkizuna ETEei kudeaketa joera berriak zehaztuko eta haietan kultur aldaketa areagotuko duten tresnak eskuratzen laguntzea da: erreferentziako ereduak (Benchmarking), Informazioaren Gizartea eta Ezagutzaren Gizartea, alegia.

Tresna horiek honakoa ekarriko dute:

Informazio etengabea eta konparagarria.

Ezagupenak eta informazioa elkartrukatzea.

Proiektuei buruzko informazioa eskuratu, ebaluatu eta igortzea.

Aitzindaritza eta talde trebakuntza.

Kudeaketa eredu eta metodori eragin korrenak ezagutzea.

Eginkizun orokor hori gauzatzeko, 2000n zehar Zuzendarientzako Garapen Ikastaroak egingo dira 30 gaietara buruz, horietako 15 American Management Association-ekin (AMA) adostutakoak izanik. Ikastaroen helburua 500 enpresa zuzendarirengana iritsi eta enpresa informazioari buruzko 6 argitalpen kaleratzea da, enpresa-praktika onenak erakarriz eta hedatuz.

Estas acciones se encaminarán a la inducción de aproximadamente 2.700 empleos, gestionando un total de 175 proyectos y movilizandoo un importe total cercano a los 54.000 millones de pesetas de inversión, en un horizonte de 3 ejercicios.

Asimismo, SPRI, S.A. actuará como entidad colaboradora del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, en la gestión de fondos EKIMEN, durante el ejercicio 2000, canalizando un importe global previsto de 5.000 millones de pesetas, tal como queda reflejado en la variación del capital circulante de su presupuesto de capital y de los nuevos Programas derivados del Plan Interinstitucional de Promoción Económica 2000-2003.

2. UNIDAD DE GESTIÓN PARA EMPRESAS PARTICIPADAS Y AGENTES COLABORADORES EN LA PROMOCIÓN EMPRESARIAL

Fundamentalmente, su misión es la de coordinar las actuaciones de las empresas participadas que tienen como principal objetivo la promoción empresarial y la generación de empleo, haciéndolas coherentes con los objetivos de SPRI, S.A. para el ejercicio, así como las de los Agentes Locales Colaboradores con los que SPRI, S.A. ha suscrito convenios, estimulando su actividad en los trabajos de promoción empresarial y creación de empleo.

2. ÁREA DE INNOVACIÓN EMPRESARIAL Y DESARROLLO TECNOLÓGICO

Este área de Innovación Empresarial y Desarrollo Tecnológico trabaja en dos ejes de actuación, conocimiento y transformación empresarial, por lo que se organiza en base a tres Departamentos, a través de los que se plantean los objetivos específicos del Área, dirigiéndose a los siguientes sectores económicos: Industria, Comercio y Turismo.

1. DEPARTAMENTO DE GESTIÓN DEL CONOCIMIENTO

